

UDALMAP: DEFINIZIOA eta EZAUGARRIAK

UDALMAP Euskal AEko udalerrietan oinarria duen lurralde-informazioaren sistema integratua da. Zerbitzu publiko bat eskaini nahi da, udalerrietako errealitate sozio-ekonomikoa hobetu ezagutu ahal izateko eta hartara erabakiak hartzea errazteko erkidegoaren hazkunde eta garapenean aritzen diren eragileei, publiko eta pribatuei.

Baita ere, **GIS** aplikazioa da, zeina baita bi estatistika eragiketa berriren emaitzen hedapenaren euskarri: “**Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako iraunkortasunaren adierazleak**” eta “**Udalerrietako ekipamendu eta azpiegituren gaineko inkesta**”. Aurrenekoz 2008ko otsailean aurkeztu eta argitaratzen da, eta diseinu, kalkulu eta ezarpen lanak Ogasun eta Herri administrazio sailak eta Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) burutu dituzte lankidetzan.

Bi estatistika eragiketak martxoaren 27ko 53/2007 Dekretuak onetsitako 2007 urteko estatistika programan araututa daude, 172514 eta 172525 kodeekin. Helburua Udal Informazio Sistema (UIS) bat sortzea da; zehaztuz, **sistematikoki Iraunkortasun Adierazleen Panela** eta **Udal Ekipamenduen Panela** lortu nahi dira, ondokoetarako:

- Euskal AEko udalerrietako errealitatea hobeto **ezagutzea**
- Ekipamendu eta azpiegituren defizita duten zonaldeak **detektatzea**, ezagutzea.
- Politika publikoak **baloratzeko eta ebaluatzeko** sistema bat garatzea, tokiko eta eskualdeko garapenarekin erlazionatutako arlo askotan erabakiak hartzea erraztera bideratuak.
- Udalerriarekin lotutako **arazo multzoak** identifikatzea
- Lortutako informazioa gizartearentzako **zerbitzu** gisa hedatzea

Udal Informazio Sistema hau zenbait baloretan oinarritzen da:

- **Informazio ofiziala:** 2007ko Urteko Estatistika Programaren barneko estatistika eragiketa ofizialen emaitzak.
- **Gardentasuna:** Informazioa, oso-osorik jartzen da erabiltzaile, instituzio eta eragile ekonomikoen eskura, publiko zein pribatuenera
- **Zehaztasuna:** Eragiketaren garapenaren barruko udal adierazleen harmonizazio, arrazionalizazio eta sistematizaziorik handienak bestelakoekin, beti ere udal informazioa sartzea bermatuz

- **Lankidetzatza:** Haren mantentzean parte hartzen dute: Ogasun Saileko Estatistika Organoa, EUSTAT, Eusko Jaurlaritzako zenbait sail, udal batzuk, Foru aldundiak eta beste erakunde batzuk
- Informazioaren **eguneratze** etengabea

Adierazleen sistema baten garapena funtsezko egitatea da; izan ere, eragile publiko zein pribatuen erabakiak bermatu eta monitorizatzeko bidea ematen du, ondokoengatik:

- **Eskualdea Garatzeko Euskal Eredu bat** artikulatzekotan funtsezko lanabesa da
- **Lisboako Estrategiako** postuluak tokiko eremura ekartzen ditu, han definitutako hiru ardatzen arabera egituratzen baita: Ekonomia-Lehiakortasuna; Gizarte kohesioa-Bizi kalitatea eta Ingurumena.
- Informazio sistema **interaktiboa** da erabiltzaileen eta hedapen-aplikazioaren artean Gaikako mapetan azalduz, datu heterogeneoen ikustarazte eta azterketa errazten du.
- Tokiko garapen jasangarriaren politikarako sistema **integratua** da
- Herri Administrazioiko beste eragileen **parte-hartzea** sustatzen du, egitasmoa garatzeko aktore gisa edo oinarrizko informazioaren hornitzaile gisa.
- Gizarteari orori **zerbitzu publiko** zuzena ematen dio, informazio garrantzitsua denontzat eskuragarri.

UDALMAP: EDUKIA ETA EGITURA**1.- UDAL IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEEN PANELA: EGITURA**

Hasiera batean (informazio gehiagoz zabal daiteke) aukeratutako **251 udalerrietarako 144 adierazlek** osatzen dute, ondoko irizpideen arabera:

- Interpretazio **argia** edukitzea
- **Sendotutako estatistiketatik** etortzea
- Beste lurraldeetan lortutakoekin **kuantifikagarriak eta konparagarriak** izatea (kanpo konparagarritasuna)
- **Etengabe berrikusiak** izatea, irudikatzen diren dimentsioetan oreka lortze aldera eta beraietan koherenteak izateko
- **Gardenak** eta erabiltzaileentzako **erraz eskuragarriak** izatea

Adierazleen erabilpena eta bistaratzea errazteko hiru mailatako piramide egitura osatzen da: **Ardatzak, Arloak eta Adierazleak**:

ARDATZAK

Ardatzak (3)	Arloak
Ekonomia - Lehiakortasuna	8
Kohesio soziala - Bizi kalitatea	8
Ingurumena	6
	Arloak guztira (22)
	ADIERAZLEAK (144)

ARLOAK

Hiru ardatzetako bakoitzerako zeregin-multzoa jartzen da:

Ardatza	Arloak
Ekonomia - Lehiakortasuna	<ul style="list-style-type: none">• Ekonomi egitura• Lan merkatua• Enpresa egituraketa• Ekonomia dinamismoa• Biztanleriaren ekonomia baliabideak• Biztanleriaren turismo gaitasuna• Hezkuntza• Udaleko ekonomia-finantza kudeaketa

Ardatza	Arloak
Kohesio soziala – Bizi kalitatea	<ul style="list-style-type: none">• Demografia• Biztanleriaren mugimendu naturala eta migrazioak• Etxebizitza• Urbanizazioa• Gizartearen ongizatea• Oinarrizko azpiegiturak• Erabilpen orokorreko ekipamenduak• Gizarte segurtasuna

Ardatza	Arloak
Ingurumena	<ul style="list-style-type: none">• Hondakinak• Ura• Energia• Ingurumen Kontzientziazioa• Garraio eta mugikortasuna• Berdeguneak eta eremu babestuak

ADIERAZLEAK

Udal Iraunkortasunaren Adierazleen Panelaren xehetasunak: Ardatz eta arloen araberako egitura eta sailkapena.

ADIERAZLEEN PANELA

EKONOMIA / LEHIAKORTASUNA

Ekonomi egitura

- 1 Nekazaritza eta arrantza sektorearen balio erantsi gordina (%)
- 2 Nekazaritza eta arrantza sektorean okupatutako biztanleria (%)
- 3 Industri sektorearen balio erantsi gordina (%)
- 4 Industri sektorean okupatutako biztanleria (%)
- 5 Eraikuntza sektorearen balio erantsi gordina (%)
- 6 Eraikuntza sektorean okupatutako biztanleria (%)
- 7 Zerbitzuen sektorearen Balio erantsi Gordina (%)
- 8 Zerbitzuen sektorean okupatutako biztanleria (%)

Lan merkatua

- 9 Jarduera tasa (%)
- 10 Emakumezkoen jarduera tasa (%)
- 11 Gizonezkoen jarduera tasa (%)
- 12 Okupatuena tasa (%)
- 13 55 eta 64 urte arteko okupazio tasa (%)
- 14 Emakumezko okupatuena tasa (%)
- 15 Gizonezko okupatuena tasa (%)
- 16 Gazte landunen tasa (%)
- 17 Gizarte Segurantzako afiliatuak (biztanleen ‰)
- 18 Okupatuena tasa: genero-arraila (p.p.)
- 19 Erregistratutako langabetuak (16 eta 64 urte arteko biztanleen ‰)
- 20 Erregistratutako luzaroko langabetuak (16 eta 64 urte arteko biztanleen ‰)
- 21 45 urte edo gehiagoko langabetu erregistratuak (45 eta 64 urte arteko biztanleen ‰)
- 22 Kontratu errotazioaren indizea (kontratuak/pertsona)
- 23 Emakumezkoen kontratu txandakaketako indizea. (kontratuak/emakumezkoa)
- 24 Gizonezkoen kontratu txandakaketako indizea. (kontratuak/gizonezkoa)

Enpresa egituraketa

- 25 Mikroenpresek sortutako lanpostuak (%)
- 26 Industri establezimenduen batez besteko tamaina
- 27 Industri sektoreko establezimenduak (%)
- 28 Eraikuntza sektoreko establezimenduak (%)
- 29 Zerbitzuen sektoreko establezimenduak (%)

Ekonomia dinamismoa

- 30 Udalerrriaren binztanleko BPG
- 31 Udal BPGaren urteko hazkunde-tasa metatua azken bost urteetan (%)
- 32 Urtean erregistratutako kontratuak (biztanleen ‰)
- 33 Urtean erregistratutako kontratu mugagabeak (%)
- 34 Urtean kontratatutako pertsonak (biztanleen ‰)
- 35 Emakueei egindako kontratu mugagabeak (%)
- 36 30 urtez azpikoei egindako kontratu mugagabeak (%)
- 37 45 urtez gorakoei egindako kontratu mugagabeak (%)
- 38 Enpleguaren zifrako urte arteko aldakuntza (%)
- 39 Establezimenduen saldo garbia (biztanleen ‰)
- 40 Establezimenduen altak (biztanleen ‰)

Biztanleriaren ekonomia baliabideak

- 41 Errenta gordina per capita (€)
- 42 Errenta pertsonal erabilgarria (€)
- 43 Errenta pertsonalaren urteko hazkunde-tasa metatua 1997 eta 2001. urteen artean (%)
- 44 Lanetik sortutako errenta pertsonala (%)
- 45 Errenta pertsonalaren urteko hazkunde-tasa metatua 2001 eta 2003. urteen artean (%)
- 46 Oinarrizko errenta jasotzen duten bizikidetzaren kopurua (biztanleen ‰)
- 47 Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetzaren kopurua (biztanleen ‰)
- 48 Kotizazio gabeko pentsioen jasotzaileak (biztanleen ‰)

Biztanleriaren turismo gaitasuna

- 49 Turismoko ostatuko plazak (biztanleen ‰)
- 50 Ostalaritza establezimenduak eta jatetxeak (biztanleen ‰)
- 51 Txikizkako merkataritzaren dentsitatea (biztanleen ‰)
- 52 Txikizkako merkataritzako azalera biztanle bakoitzeko. (m² / biztanleen ‰)
- 53 Noizean behingo ondasunen merkataritzaren dentsitatea (biztanleen ‰)

Hezkuntza

- 54 Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten 25 eta 64 urte arteko biztanleak (%)
- 55 Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten 20 eta 24 urte arteko biztanleak (%)
- 56 Unibertsitateko ikasketak bukatu dituzten 18 eta 64 urte arteko biztanleak (%)

Udaleko ekonomia-finantza kudeaketa

- 57 Udalaren gastu likidatua biztanle bakoitzeko (€)
- 58 Udalaren zerga-bilketa biztanle bakoitzeko (€)
- 59 Udalaren zor bizia biztanle bakoitzeko (€)
- 60 Udalaren inbertsio garbia biztanle bakoitzeko (€)

KOHESIO SOZIALA / BIZI KALITATEA
Demografia

- 61 Biztanleriaren urte arteko aldaketa (%)
- 62 Biztanleriaren aldaketa azken hamarkadan (%)
- 63 Haur indizea (%)
- 64 Zahartze-indizea (%)
- 65 Gainzahartze-indizea (%)
- 66 Mendekotasun demografikoko indizea

Biztanleriaren mugimendu naturala eta migrazioak

- 67 Jaiotza-tasa gordina (biztanleen ‰)
- 68 Hazkunde begetatiboko tasa (biztanleen ‰)
- 69 Kanpoko migrazio-saldoa (biztanleen ‰)
- 70 Biztanleria atzerritarra (%)
- 71 EB-15etik kanpoko biztanleria atzerritarra (%)
- 72 EB-25etik kanpoko biztanleria atzerritarra (%)

Etxebizitza

- 73 Etxebizitza-dentsitatea egoitza-lurzoruan (Etxebizitza/ Ha.)
- 74 Hutsik dauden familia-etxebizitzak (%)
- 75 50 urtetik gorako antzinatasuna daukaten familia-etxebizitzak (%)
- 76 Familia-etxebizitza nagusien erosotasun-indizea
- 77 Aurri-egoeran, egoera txarrean edo eskasean dauden eraikinetako familia-etxebizitza nagusiak (%)
- 78 Etxebizitza dauden etxebizitza-eskabideen kopurua (‰ biztanle)
- 79 Etxebizitza babestuen (BOE) beharraren estaldura azken bost urteetan (% eskabide)
- 80 Etxebidek azken bost urteetan adjudikatu dituen etxebizitza babestuak (BOE) (‰ biztanle)
- 81 Azken bost urteetan etxebizitza berriak egiteko emandako baimenak (‰ biztanle)
- 82 Azken bost urteetan amaitu diren etxebizitza babestuak (‰ biztanle)

Urbanizazioa

- 83 Udal hiri-lurzoria (%)
- 84 Bizitegiarako lurzoru urbanizagarria (%)
- 85 Biztanle-dentsitatea (bizt./km²)
- 86 Edonor sartzeko udal eraikin irgarriak (%)
- 87 Etxebizitzen eraikinak, bi solairu edo gehiagokoak eta igogailurik gabekoak (%)

Gizartearen ongizatea

- 88 Udalek Gizarte Zerbitzuetan egiten duten gastu arrunta biztanle bakoitzeko (€)
- 89 Udalek Gizarte Zerbitzuetan egiten duten gastu osoa biztanle bakoitzeko (€)
- 90 Eguneko zentroen (3. adinekoak eta urrituak) betetze-maila (%)
- 91 Egoitza-zentroen (3. adinekoak eta urrituak) betetze-maila (%)

Oinarrizko azpiegiturak

- 92 Ur hornidurarako sistemaren errendimendu-tasa (%)
- 93 Argiteria publikoa (biztanleen ‰)
- 94 Gas kanalizatutako familia etxebizitza nagusiak (%)

Erabilpen orokorreko ekipamenduak

- 95 Haur Hezkuntzaren unitateak (0 eta 2 urte arteko 100 biztanleko)
- 96 Liburutegi publikoetako liburuak biztanle bakoitzeko
- 97 Zinema-aretoak (guztira)
- 98 Zinema-aretoen edukiera (1.000 biztanleko guztira dagoen besaulki kopurua)
- 99 Farmaziak 10.000 biztanleko
- 100 3. adinekoentako eguneko zentroetako plaza kopurua (65 urteko eta gehiagoko biztanleen ‰)
- 101 3. adinekoentako egoitza-zentroetako plaza kopurua (65 urteko eta gehiagoko biztanleen ‰)
- 102 Urrituentzako eguneko zentroetako plaza kopurua (biztanleen ‰)

- 103 Urrituentzako egoitza-zentroetako plaza kopurua (biztanleen %)
- 104 Umeen jolaseko gune publikoak (2-12 urte arteko 1.000 biztanle bakoitzeko)
- 105 Banku bulegoak 10.000 biztanleko
- 106 Posta bulegoak 10.000 biztanleko
- 107 Gasolindegia 10.000 biztanleko
- 108 Komun publikoak 10.000 biztanleko
- 109 Telefono-kabinak (telefono kabina kopurua, 1.500 biztanleko)
- 110 Ospitaletara distantziak

Gizarte segurtasuna

- 111 Udaltzain kopurua (%_o biztanle)
- 112 Delitu indizea (%_o biztanle)
- 113 Udalerrian izan diren trafikoko istripuak, Ertzaintzak erregistratutakoak (%_o; biztanle)
- 114 Udalerrian Ertzaintzak erregistratutako ibilgailuek harrapatutako oinezkoak (%_o; biztanle)

INGURUMENA**Hondakinak**

- 115 Etxean guztira sortutako hondakinak, biztanle eta eguneko (kg./ biz./egun)
- 116 Hondakin arriskutsuen sorkuntza (kg/biztanleko)
- 117 Etxeko hondakinak biltzeko edukiontzia (1.000 biztanleko)
- 118 Beira biltzeko edukiontzia (1.000 biztanleko)
- 119 Papera biltzeko edukiontzia (1.000 biztanleko)
- 120 Ontziak eta plastikoak biltzeko edukiontzia (1.000 biztanleko)
- 121 Pilak biltzeko edukiontzia (1.000 biztanleko)
- 122 arropa/ehunak biltzeko edukiontzia (1.000 biztanleko)
- 123 Kutsatuta bide dauden udal lurak (%)

Ura

- 124 Ur eskaera osoa, biztanle eta eguneko (litro/ biztanle/egun)
- 125 Industriaren ur eskaera, biztanle eta eguneko (litro/ biztanle/egun)
- 126 Kontsumorako uraren osasun kalifikazioa

Energia

- 127 Instalaturako potentzia fotoboltaikoa (kwp / 10.000 biztanle)
- 128 Instalaturako potentzia eolikoa (kw / 10.000 biztanle)
- 129 Instalaturako potentzia hidraulikoa (kw / 10.000 biztanle)
- 130 Instalaturako eguzki-azalera termikoa (m² / 10.000 biztanle)

Ingurumen Kontzientziak

- 131 Ingurumen ziurtagiria duten udaleko establezimenduak (%)
- 132 Energia eraginkortasunaren ziurtagiria duten etxebizitzak (CADEM) (%)

Garraio eta mugikortasuna

- 133 Udalerrian garraio eta komunikazio azpiegiturarako dagoen azalera (%)
- 134 Udalerrian errepideetarako dagoen azalera (%)
- 135 Udalerriko bidegorri sarea (km / 10.000 biztanle)
- 136 Bizi den herritik kanpo lan egiten duen 16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua (%)
- 137 Bizi den herritik kanpo ikasten duen 16 urte edo gehiagoko ikasle biztanleria (%)
- 138 Ibilgailu parkea (ibilgailu / biztanle)
- 139 Taxia gidatzeko lizentziak (10.000 biztanle)
- 140 Udalerrien arteko irisgarritasuna
- 141 EAEko gainerako udalerrietara joateko batez besteko denbora (min)

Berdegunak eta eremu babestuak

- 142 Udalerrian parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera (% hiri lurzorua aldean)
- 143 Udalerrian parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera (m²/biztanle)
- 144 babes bereziko udal azalera (%)

2.- UDAL IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEEN PANELA: EGITURA

Udal ekipamendu eta azpiegituren panela: Egitura

Gaur egun dauzkagun ekipamenduen tipologiaren arabera, den-denak barne hartzen dituzten bost sail edo azpi-panel ezarri dira.

Subpanela	Ekipamenduak
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitate zentroak • Unibertsitatez kanpoko hezkuntza zentroak
Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> • Egitzak, eguneko Zentroak, lanerako Zentroak, babespeko Pisuak, Haurtzaindegi pribatuak, etab.
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Ospitaleak, Anbulatorioak, Osasun Zentroak, Farmaziak, Kontsultategiak etab.
Kultura	<ul style="list-style-type: none"> • Museoak, Liburutegiak, Agiritegiak, Antzokiak, Erakusketa Aretoak, Euskaltegiak, KZguneak, etab.
Garraioa	<ul style="list-style-type: none"> • Tren geltokiak, Metro sarbideak, Aireportuak, Gasolindegia, etab.
Instituzioak	<ul style="list-style-type: none"> • Udaletxeak, Suhiltzaileen Etxeak, Turismo Bulegoak, Informazio Bulegoak
Bestelakoak	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako banda zabalaren errepikagailuak, LTDren (lurreko telebista digitalaren) errepikagailuak, Hondartzak, etab.

Udal ekipamendu eta azpiegituren panela, Egitura Ekipamendu moten arabera azpi-panelen xehetasunak.

EKIPAMENDUEN PANELA

HEZKUNTZA

- 1 *Unibertsitate zentroak*
- 2 *Unibertsitatez kanpoko hezkuntza zentroak*

GIZARTE ZERBITZUAK

- 3 *Hirugarren adinekoak: eguneko asistentzia-zentroak*
- 4 *Hirugarren adinekoak: elkarteak, erakundeak eta zebitzu pribatuak*
- 5 *Hirugarren adinekoak: ostalua duten zentroak*
- 6 *programa eta zerbitzu publikoak (prebentzioa, arreta eta balorazioa ...)*
- 7 *Familia, baztertua eta bestelakoak: eguneko zentroak*
- 8 *Familia, baztertua eta bestelakoak: elkarteak, erakundeak eta zebitzu pribatuak*
- 9 *Ezintasuna: eguneko asistentzia-zentroak*
- 10 *Ezintasuna: elkarteak, erakundeak eta zebitzu pribatuak*
- 11 *Ezintasuna: ostalua duten zentroak*
- 12 *Hirugarren adinekoak: eguneko zentroak*
- 13 *Ezintasuna: lanerako zentroak eta enplegu-zentro bereziak*
- 14 *Ezintasuna: eguneko zentroak*
- 15 *Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak*
- 16 *Hurtzaindegi pribatuak*

OSASUNA

- 17 *Anbulatorioak, osasun zentroak eta kontsultategiak*
- 18 *Farmaziak*
- 19 *Ospitaleak*

KULTURA

- 20 *Gazteentzako informazio bulego eta puntuak*
- 21 *Gazteentzako lokalak*
- 22 *Gazteentzako aterpeak*
- 23 *Liburutegiak*
- 24 *Museoak*
- 25 *Euskaltegiak*
- 26 *Kzgunek: Internet bidezko nabigazio eta doako ikastaroak*
- 27 *Erakusketa aretoak eta galeriak*
- 28 *Antzokiak*
- 29 *Agiritegiak*

GARRAIOA

- 30 *Tren geltokiak*
- 31 *Aireportuak*
- 32 *Metro sarbideak*
- 33 *Gasolindegiak*

INSTITUZIOAK

- 34 *Udalak*
- 35 *Suhiltzaileen etxeak*
- 36 *Turismo bulegoak*
- 37 *Kontsumitzailearen informaziorako udal bulegoak*

BESTELAKOAK

- 38 *Nekazaritzako banda zabalaren errepikagailuak*
- 39 *LTDren (lurreko telebista digitalaren) errepikagailuak*
- 40 *Hondartzak*
- 41 *TBAren (telebista analogikoa) errepikagailuak*